

2022 / 2023 ikasturtea

DISFAGIA MANEIUAREN INGURUKO OSASUN HEZKUNTZA PROGRAMA
ADINEKOEN EGOITZETAKO LANGILEEI ZUZENDUA

Andrea Etura Tobalina

LABURPENA

Sarrera: Disfagia, gaur egun gutxiesten den sindrome bat da. Izan ere, munduko heriotza eragile nagusienetako baten artean aurkitzen da, adinekoen artean prebalentzia handiena delako. Erabiltzaileen artean, eragin biopsikosozial, ekonomiko eta emozionala eragiten du, baita zaintzaile zein osasun profesionalen artean ere. Argi dago, detekzio goiztiarra eginez gero, kostu baxuko esku-hartze indibidualizatuak gauzatu daitezkeela, konplikazioak ekiditeko.

Helburua: Disfagia maneiuaren inguruko Osasun Hezkuntza programa diseinatzea Errenteriako adinduen Jesusen Bihotza egoitzako langileei zuzendua.

Metodologia: Osasun Hezkuntza programa osatzeko, PIO galderari erantzunez, eta barneratze eta kanporatze irizpideak jarraituta, datu-baseetan bilaketa bibliografikoa burutu da. Horrez gain, web-orri, gida eta liburu ezberdinetan bilatu da.

Plangintza: Errenteriako Jesusen Bihotza adinekoen egoitzan burutuko da, eta osasun langileei zuzendua dago. Xede-taldearen ezagutza, jarrera, gaitasun eta itxaropenak identifikatu ostean, 4 saioetan banatuko da programa, 12 gai jorratuz. Asteartero bi saio egongo dira, xede-taldearen lan orduak kontuan hartuz, bat goizean eta beste bat arratsaldean. Saioak, erizainek aurrera eramango dituzte, sukaldari eta logopeda bat gonbidatu bezala edukiz. Xede-taldea modu jarraituan zein amaieran ebaluatuko da tresna ezberdinen bitartez. Bukatzeko, programa bete eta helburuak lortu diren ziurtatzeko, sortutako hainbat ebaluazio tresna erabiliko dira.

Ekarpen pertsonala: Disfagiaren maneiorako gida ofizialak falta dira, nahiz eta informazio ugari aurki daitekeen. Arreta egokia eskaintzeko, praktika klinikoko gidak garatzea eta balioztatzea eskatzen da. Honen beharra dago, erabiltzaileei zuzenki eragiten diolako. Garrantzitsua da egoitzan sartu bezain laster balorazio geriatriko integrala egitea, detekzio goiztiarra gauzatzeko. Osasun langileek paper garrantzitsua dute hezitzaile moduan, diziplina anitzeko taldeak parte harturik, 24 orduz erabiltzaileekin daudelako.

Hitz gakoak: Disfagia, adineko pertsonak, gaixotasun neurologikoak, gaixotasun neurodegeneratiboak, detekzio goiztiarra, Osasun Hezkuntza programa.

AURKIBIDEA

1.	SARRERA	1
1.1.	OSASUN HEZKUNTZA PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA	2
1.2.	INTENTSITATEA EDO TAMAINA	3
1.3.	GARRANTZIA	4
1.4.	ARRISKU FAKTOREAK	6
1.5.	URRAKORTASUNA	7
1.6.	KOSTUA.....	8
1.7.	XEDE TALDEAREN AUKERAKETAREN JUSTIFIKAZIOA	9
2.	HELBURUAK.....	10
2.1.	HELBURU NAGUSIA	10
2.2.	BIGARREN MAILAKO HELBURUAK.....	10
3.	HEZKUNTZA EDUKIAK.....	10
4.	METODOLOGIA.....	13
5.	PLANGINTZA	15
5.1.	XEDE TALDEA IDENTIFIKATU.....	15
5.2.	XEDE TALDEAK LORTU BEHAR DITUEN HELBURU PEDAGOGIKOAK ...	15
5.2.1.	HELBURU NAGUSIA	15
5.2.2.	BIGARREN MAILAKO HELBURUAK	16
5.3.	JARDUEREN PROGRAMAKETA.....	16
5.4.	BALIABIDE MATERIAL ETA EKONOMIKOAK	31
6.	EBALUAZIOAREN PLANGINTZA.....	31
6.1.	EMAITZEN EBALUAZIOA	31
6.2.	PROZEDUREN EBALUAZIOA	31
6.3.	EGITURA ETA BALIABIDEEN EBALUAZIOA	32
7.	EKARPEN PERTSONALA.....	32
8.	BIBLIOGRAFIA.....	33
9.	ERANSKINAK	37
1.	Eranskina: Disfagia motaren sailkapen ezberdinak.....	37
2.	Eranskina: Disfagiaren prebalentzia adineko erabiltzaileen eta gaixotasun neurologiko eta neurodegeneratiboak dituzten erabiltzaileen artean.	38
3.	Eranskina: Bizi-kalitateko galdetegia.....	39
4.	Eranskina: Datu-base ezberdinetan bilaketa-katearen bilakaera eta lortutako emaitzen taula.....	40
5.	Eranskina: Ebidentziako 5.0 piramidea.....	42

6.	Eranskina: Kronograma, lekua, osasun agenteak eta baliabideak.	43
7.	Eranskina: Disfagiaren Osasun Hezkuntza programa helarazteko posterra.	44
8.	Eranskina: Hasiera eta bukaerako saioetan, xede-taldearen ezagutzak, gaitasunak eta jarrerak ebaluatzeko galdetegia.	45
9.	Eranskina: Disfagiaren informazio orokorrak (<i>power-point</i>).	47
10.	Eranskina: Lehenengo saiorako “Kahoot” galdetegia.	52
11.	Eranskina: Disfagiaren fisiopatologia eta konplikazioak (<i>power-point</i>).	59
12.	Eranskina: Disfagiaren detekzio goiztiarra eta Virginia Hendersonen 14 beharrak (<i>power-point</i>).	65
13.	Eranskina: EAT-10 galdetegia.	70
14.	Eranskina: MECV-V galdetegia.	71
15.	Eranskina: Kasu klinikoa.	73
16.	Eranskina: Bigarren saiorako “Kahoot” galdetegia.	78
17.	Eranskina: “Fotopalabra”.	85
18.	Eranskina: Disfagiaren esku-hartze ezberdinak (<i>power-point</i>).	88
19.	Eranskina: Disfagiarako nutrizioaren esku-hartzeak (<i>power-point</i>).	97
20.	Eranskina: Testurak eta elikadura ohituren galdetegia.	105
21.	Eranskina: Disfagia orofaringeoaren esku-hartze ezberdinen inguruko galdetegia.	107
22.	Eranskina: Lehen sorospinak buxadura baten aurrean (<i>power-point</i>).	108
23.	Eranskina: Show antzerkirako egoera ezberdinak.	111
24.	Eranskina: Disfagiaren inguruko triptikoa xede-taldearentzat.	112
25.	Eranskina: Disfagia orofaringeoarekin erlazionatutako estresaren tolerantziako erizaintza diagnostikoak.	113
26.	Eranskina: Xede-taldeak eta Osasun agenteak Osasun Hezkuntzaren prozesua ebaluatzeko galdetegiak.	114
27.	Eranskina: Xede-taldeak eta Osasun agenteek Osasun Hezkuntzaren egitura zein baliabideak ebaluatzeko galdetegiak.	116

TAULEN AURKIBIDEA

1.	Taula: PIO egituraren oinarrituta erabilitako deskriptoreak eta hitz gakoak/terminologia librea.	13
2.	Taula: Behin-betiko bilaketa eta lortutako emaitzak.	14
3.	Taula: Jardueren programazioa garatua.	18

IRUDIEN AURKIBIDEA

1.	Irudia: Presbifagiarekin lotutako faktoreak adineko pertsonetan.	6
----	--	---

LABURDURAK

ASPACE: Confederación Española de Asociaciones de Atención a las Personas con Parálisis Cerebral (Garuneko Paralisia duten Pertsonen Laguntzeko Elkarten Espainiako Konfederazioa)

DO: Disfagia orofaringea

ELA: Esclerosis Lateral Amiotrófica (Alboko esklerosi amiotrofikoa)

ESSD: “European Society for Swallowing Disorders” (Europako Irensketa Nahasteen Elkarte)

EUGMS: “European Union Geriatric Medicine Society” (Europa Batasuneko Medikuntza Geriatrikoko Elkarte)

EUSTAT: Euskal Estatistika Erakundea

NUTRICARE: “Nutritional Care Programa” (Nutrizio Arretarako Programa)

OME: Osasunaren Mundu Erakundea

TMF: “Texture modified food” (Testura aldatutako elikagaiak)

WGO: “World Gastroenterology Organisation” (Gastroenterologiako Mundu Erakundeak)

1. SARRERA

Lehenik eta behin, disfagia ulertzeko, irenketaren definizioa azaldu behar da. Irensketa, ekintza koordinatuen, borondatezkoen eta nahigabekoen multzoa da, eta elikadura-boloa ahotik urdailera eramatea datza. Funtsezko prozesua da, eta inplikaturako egitura anatomikoen osotasun fisiko eta funtzionala eskatzen du, baita nerbio-sistema zentralaren funtzionamendu egokia ere. Hark bidaltzen ditu sekuentzia motorrak osatzen duten seinaleak, borondatezkoak eta borondatezkoak ez direnak (1).

Disfagiaren definizioaren inguruan, kontraesan asko agertzen dira, batzuetan sintoma bezala definitzen da, beste batzuetan berriz, gaixotasun eta sindrome bezala. Etimologikoki, terminoa greziar jatorriko bi hitzetatik dator: “Dys” (zailtasuna) eta “phagia” (jan) (2). Disfagia, pertsonaren irensteko ahalmenari eragiten dion sindrome bat da, hots, elikadura-boloa sortzeko eta ahotik urdailera garraiatzeari eragiten diona, janaria arnasbidean sartzeko aukera edukiz (3).

Zahartzeak eragindako irensketa-funtzioko aldaketei presbifagia deitzen zaio; izan ere, presbifagia eta disfagia ez dira gauza bera. Ikerketek, zahartzaroa disfagiaren arrisku-faktore gisa identifikatu dute, baina inoiz ez arrisku-faktore independente gisa. Hala ere, irensketa fisiologikoaren eta patologikoaren arteko aldea ezartzea zaila da, eta adinean aurrera egin ahala, beste arrisku-faktore batzuk ere nahasten dira, segurtasuna arriskuan jar baitaiteke (4, 5).

Disfagiak, bost sailkapen ezberdin ditu (1. *Eranskina*). Kokapenaren arabera, Gastroenterologiako Mundu Erakundea (WGO, 2014), bi kategoriatan banatu zuen: disfagia orofaringea (DO), non irensketa hastean datza zailtasuna; eta disfagia esofagikoa, non janaria edota likidoak ahotik urdailera igarotzea oztopatzen den sentazioa dagoen (6). Bere bereizketa funtsezkoa izango da esku-hartze indibidualizatuak gauzatzeko (7).

Disfagia orofaringea, irensteko prozesuan sortutako zailtasuna bezala definitzen da, elikagaia edo edaria aho iristen denetik eta elikadura-boloa eratzen denetik, goiko esfinter esofagikoa irekitzen den arte. Ahoko, faringeko, laringeko eta goiko esfinter esofagikoko alterazioak biltzen ditu. Oro har, jatorri funtzionalekoa izaten da (1, 8).

Aipatu bezala, disfagia faktore anitzeko arazo bat da, eta zahartzearekin lotutako sintomekin lotzen da, hala nola, listu-jariatze gutxiagotzea, muskulu-indarraren gutxitzea, hortzeriaren alterazioak eta irenketaren moteltzea (3).

Horrez gain, disfagia garatzeko adineko biztanleriaren artean prebalentzia handia egon arren, beste etiologia ezberdinak aurkitzen dira, hala nola: gaixotasun neurologikoak (disfagia neurogenoa), gaixotasun muskularrak, gaixotasun organikoak, kausa iatrogenikoak, gaixotasun infekziosoak eta alterazio funtzionalak (9).

Orokorrean, zeinuk irensketa hasi ondorengo lehen uneetan agertu ohi dira, baina minutu batzuetara ere ager daitezke. Batzuetan, oharkabean pasa daitezke, eta, ondorioz, xurgapen isilak sor daitezke (1). Zeinu eta sintoma orokorrak ondorengoak dira: listua edo janaria ahotik isurtzea, eztula jan edo edatean, lerdea, masailean janaria itsastea eta sudurreko berrahoratzea, etab. (6, 8, 10, 11).

Zeinu eta sintoma horietakoren bat hautematen denean eta aldi batez irauten duenean, diziplina anitzeko taldeak parte hartu behar dute ebaluazio zehatza gauzatzeko eta horrela, esku-hartze indibidualizatuak gauzatzeko. Sindromea diagnostikatu ezean, segurtasun eta eraginkortasunean konplikazioak sor daitezke, hala nola, deshidratazioa, malnutrizioa, pneumonia eta dependentzia, instituzionalizatuak izateko arriskua izanik. Aldiz, sindromea diagnostikatuta, hainbat esku-hartze egin daitezke konplikazioak saihesteko: errehabilitazio-tratamenduak, boloaren ezaugarriak aldatzea testurak aldatuz eta oinarri neurofisiologikoa duten esku-hartzeak (6, 9, 12).

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) argitaratutakoaren arabera, sindrome honek Nazioarteko Gaixotasunen sailkapenaren azken bertsioetan (CIE-9 eta CIE-10) kode espezifiko du (787.2, R13) (12), eta Gaixotasunen eta Lotutako Osasun Arazoen Nazioarteko Sailkapen Estatistikoan (ICD-9 eta ICD-10.1OD), nahasmendu gastrointestinalaren barruan sailkatzen da (13).

1.1. OSASUN HEZKUNTZA PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA

Erakunde soziosanitarioen eremuan, irenketaren eta malnutrizioaren narriadura saihesteko, diagnostikatu eta beste gizarte-esparru batzuetan baino errazago trata daitezkeen arazoak dira. Trebatutako osasun-langile kualifikatuak lan horiek egiten dituzte, eta funtsezkoak dira adinekoren ongizaterako eta segurtasunerako (14).

Gaur egungo joera, espezialitate guztietako ezagutzak bereganatzen dituzten profesionalak prestatzea da, disfagiari ikuspegi bateratu batetik eraso diezaioketenak. Foro batzuetan, espezialitate hasiberri hori "Deglutismo" bezala izendatzen dute. Adineko jendearengan gaixotasunaren prebalentzia handia izateak eta bizi-itxaropena etengabe igotzeak, gaixotasun horri aurre egiteko profesional ugari behar izatea ekarriko duela uste da (15).

Erizaina, pazientea zaintzeaz arduratzen denez, trebatuta egon behar du irenketaren lehen balorazioa egiteko eta behatzeko, askotan ez baitaki arazo hori dutela. Disfagiaren baheketa egiteko jarrera ideala du, izan ere, pazienteen zerbitzura daude eguneko 24 orduetan beste osasun profesionalekin batera (3, 6). Horregatik, ezagutza egokia izatea funtsezkoa da, erabiltzailearen historia klinikoan erabiliko diren esku-hartze ezberdinak idatziz. Horrela, egoera horretan bizi diren egoiliarrei arreta segurua bermatuko zaie (6, 10).

1.2. INTENTSITATEA EDO TAMAINA

Europako Irensketa Nahasteen (ESSD) eta Europa Batasuneko Medikuntza Geriatrikoaren elkarteak (EUGMS), DO sindrome geriatrikotzat jo dute, osasunean duen eragin negatiboarengatik, intzidentzia handiarengatik, eta adineko pertsonetan prebalentzia handiko koadro klinikoa delako, 65 urtetik gorako biztanleen % 30-40ri eragin diezaioke (2, 12, 14, 16). Euskadiko Logopeden Elkargoaren arabera, sindrome honek, Euskadiko egoitzetan dauden egoiliarren artean, % 40ri eragiten diela estimatzen da (17).

Espanian, gaur egun, biztanleriaren % 17,3k 65 urte baino gehiago ditu, eta Euskal Erkidegoan, berriz, ehuneko hori % 23koa da; beraz, pixkanaka prebalentzia handitzen joango dela uste da (18).

ESSD eta EUGMS-ek argitaratutako dokumentuaren arabera, mundu mailan, % 3ari eragiten dion arazoa da eta nahiz eta eragin negatiboa izan adinekoen gaitasun funtzionalean, osasunean eta bizi-kalitatean, munduan gutxien ezagutzen eta gutxiesten den sindrome geriatrikoen artean aurkitzen da (7).

Disfagiaren prebalentzia, gainera, modu independentean bizi diren pertsonen kasuan, % 30-40 bitartekoa da; tasa hori % 44raino igotzen da ospitaleko zainketa geriatriko akutuetan, eta % 60raino instituzionalizatutako adinekoen kasuan (8, 12, 19).

Disfagia orofaringeo funtzionalaren prebalentzia gaixotasun neurologikoak eta neurodegeneratiboak dituzten erabiltzaileetan oso handia da, % 30-82ra iritsiz. Ikerketa baten arabera, egoitzetan dauden demenziadun erabiltzaileetan, disfagia dutenen ehunekoa handiagoa da (% 53), ez dutenena baino (% 47) (3, 7, 12). Bestetik, DO tratamendu kirurgikoa edo erradioterapikoa, tumore orofaringeoak, laringeoak edo aurpegikoak eduki dituzten erabiltzaileen % 80ri eragiten die (2. *Eranskina*) (3, 12).

Sindromearen nutrizio- eta arnasketa-konplikazioak oso larriak eta ohikoak dira. Disfagia dutenen artean malnutrizioaren prebalentzia oso handia da, gaixotasun neurologikoak dituzten pazienteen % 25ari eragiten die, baita adineko pertsonen % 33ri.

Deshidratazioa ere disfagiaren konplikazio ohikoa da, nahiz eta prebalentzia askoz ezezagunagoa izan (1, 12).

Bestetik, arnas konplikazioak disfagia orofaringeoaren heriotza-kausa nagusia da, xurgapenak eragiten dituztelako maiz; izan ere, xurgapenak garatzen dituzten pazienteen % 50ek pneumonia garatzen dute, horri lotutako heriotza-tasa % 50eraino iritsiz (12). Instituzionalizatutako adinekoek, pneumonia izateko arrisku handiena dute, komunitatean bizi direnekin alderatuz gero, intzidentzia hamar aldiz handiagoa izanik (4, 6, 12). Horrek guztiak, eragin zuzena du pazientearen bizi-kalitatean, bizi-pronostikoa okertuz, sendatze funtzionala murriztuz eta erikortasuna areagotuz (1, 12, 20).

1.3. GARRANTZIA

Disfagiak, erabiltzaileentzat, zaintzaileentzat eta osasun agenteentzat ondorioak dakartza epe labur eta luzera. Horien artean, biologikoak, psikologikoak, familiarak, ekonomikoak eta sozialak aurkitzen dira.

Eragin biologikoari dagokionez, sindromearen etiologia bi alterazio-multzo handiren ondorio izan daiteke: irenketaren erreflexuarena eta goiko esfinter esofagikoaren irekitzearena. Irensketa erreflexuak, hiru gertaera multzo hartzen ditu bere baitan: egitura orofaringeoen aldi baterako berrantolaketa, atsedeen-egoeran dagoen arnasbidearen konfiguraziotik irenstean digestio-bidearen antolaketa bateraino; elikadura-boloa ahotik esofagoraino transferitzea, eta arnas konfigurazioa berreskuratzea (12).

Irensteko garaian, lau balbula garrantzitsu irekitzen eta ixten dira: ahosabai bigunaren eta mingainaren arteko zigilua (glosopalatino zigilua); nasofaringea ixtea, ahosabai biguna igota (belofaringeo zigilua); laringeko ataria, epiglotisaren jaitsieraren bidez itxia eta goiko esfinterra esofagikoa irekitzea. Aitzitik, disfagia neurogenikoa duten pazienteetan eta adinekoetan, irenketaren segurtasunean alterazio bat dute, irensketa erreflexuaren (glosopalatino-zigilua ireki eta laringe-ataria itxi arteko aldia), iraupena oso luzatuta baitago (2, 12).

Prozesu horretan, bi ezaugarri aldatu egingo dira disfagiaren eraginez, nutrizio eta hidratazio egokirako behar diren kaloria guztiak eta ura irensteko zailtasuna sortuz. Lehenengoa, irenketaren eraginkortasuna da, gutxitzen denean, malnutrizioa edota deshidratazioa ager daiteke. Bigarrena, irenketaren segurtasuna da, hondatzen denean, arnasbidea oztopatu daiteke, xurgatze bat gertatuz, eta horrek, pneumonia bat sor dezake. Gainera, mihiak elikadura-boloa gazte batek baino beranduago eusten du, eta, ondorioz, boloa garaiz ateratzen da aho-barrunbetik (2, 7, 12).

Bestetik, zahartze-prozesu naturalak aldaketa anatomikoak eragiten ditu lepoan eta buruan, mekanismo neuronaletan eta muskularretan, eta erreserba funtzionala galtzea eragiten du, irensketa-prozesuan eragina izan dezakeena (2).

Eragin psikologikoa eta soziala adinekoen artean gutxiesten den arazoetako bat da, eta haien nutrizio-egoeran eragin handiena du. Horrek, ondorio negatiboak ditu beraien ongizate fisiko, mental eta emozionalean (1, 14). Disfagia aztertzeko Europako taldearen azterlanean, gaixoen % 36k beste pertsona batzuekin jatea saihesten zuten, % 41ek janariaren aurrean antsietatea sentitzen zuten eta % 55ek disfagiak haien bizi-kalitatea okertu zuela uste zuten. Izan ere, % 70ek adierazi zuen bizitza ez zela hain atsegina disfagia diagnostikatu zenetik (1, 12, 7, 21).

Kontuan hartu beharreko faktore garrantzitsuetako bat, erabiltzaile asko ez direla kontziente disfagia-zantzuez da — askotan, oinarrizko gaixotasunengatik —, eta bai haiek, bai haien senideek ez dakite disfagia modu espezifikoan diagnostikatu eta esku-hartu daitekeen nahasmendua dela (3, 12). Horretarako, Europako disfagia taldeak erabiltzaileei pasatzeko test egokitu bat sortu dute (3. *Eranskina*) disfagia orofaringeoaren bizi-kalitatea baloratu ahal izateko (7).

Eragin psikologikoa osasun profesionalen artean ere hedatzen da. Nutrizio eta otorduetan erronka handia da, estresagarria izan daiteke, lan-karga handituz. Adinekoen egoitzetako langileek tentsio emozionala eta estresa izateko arrisku handia dute, bai “burnout” eta depresioa izateko arrisku faktoreak ere (7, 19, 21).


Holtengek eta lankideek egindako ikerketaren arabera, parte-hartzaileek egoiliarrekin modu eraginkorrean komunikatzeko beharra antzeman zuten, baina denbora falta eta gaixotasuna oztopo handia ziren. Bestetik, lau kategoria nagusi sortu ziren parte-hartzaileek testura aldatutako elikagaiak (TMF) erabilerari buruz izandako eztabaidetan: tentsio emozionala, nutrizio-zaintza eskasa, autoeraginkortasuna areagotzea TMF erabiltzearekin eta nutrizio-zaintza hobea TMF erabiltzearekin. Izan ere, Karlssonek eta lankideek egindako ikerketaren arabera, zaintzaileak askotan kezkatzen ziren egoiliarrek kaltetzeaz, eta horrek, frustrazioa nahiz estresa sortzen zieten (21).

Eragin ekonomikoari dagokionez, diagnostiko goiztiarra egin ezean, sindromea azkarrago garatzen da eta baliabide gehiago behar izaten dira tratatzeko. Gainera, konplikazioak ager daitezke eta zenbaitetan ospitaleratuak izan behar dira frogak egiteko, eta horrek, osasun kostu altua dakar, erikortasuna areagotuz (12).

Eragin familiarrari dagokionez, sindromearen inguruko ezjakintasunak, erasan fisikoa, psikologikoa eta sufrimendu morala eragiten die, askotan errudun sentituz konplikazioak ez saihesteagatik. Sarritan, ez dakite nola jokatu disfagia duen senidearekin eta zaintzaren karga igotzen da (12, 21).

1.4. ARRISKU FAKTOREAK

Sindromeak, irenketaren hiru faseetako bati eragin diezaioke: ahoko faseari (borondatezkoa), faringeoari (nahi gabe, irenketaren islada) edo esofagikoari (nahi gabe) (3). Aldiz, zaila da zehaztea zer faktorek eragiten duten disfagia adineko biztanlerian, gaixotasun baten parte gisa edo giza anatomian gertatzen diren aldaketa larrien ondorioz gerta daitekeelako (4, 21). Horietatik, gutxi batzuk baino ez dira identifikatu arrisku-faktore independentetzat; besteak beste, kandidiasia, sarkopenia, adina, sexua, hauskortasuna, eta komorbiditateak (4, 7). Baita, adinekoen funtzio kognitiboa, hortzeria eta ahoko funtzio motorra ere (*ikus 1. Irudia*).



1. Irudia: Presbifagiarekin lotutako faktoreak adineko pertsonetan. Iturria: (5).

Faktoreen zerrenda handitu egiten da adinarekin batera, hala nola, gaixotasun neurologikoak, gaixotasun neurodegeneratiboak eta tumore gaiztoak (4, 6, 10). Izan ere, disfagia ez da inoiz zahartzearen zeinu normaltzat hartzen.

Lehen aipatu bezala, presbifagia, hartzaile aferenteen sentikortasuna gutxitzearen, nerbio-sistema zentralaren edo periferikoaren alterazioen ondorio da. Alteraziorik bereizgarriena, listu-jariaketa gutxitzea eta biskositatea eta lodiera handitzea da, horrek boloaren prestaketa eta propulzioa zailduz. Ezpainetako tentsioa gutxitzen denez ere,

boloa ahotik irtetea errazten du, eta hortzetako piezak hondatzen dira, murtzikatze osatugabeak eraginez (1).

Beraz, disfagia alarma-sintomatizat hartzen da, berehalako ebaluazioa behar du haren kausa diagnostikatu eta esku-hartzeekin hasteko (4, 6, 10).

1.5. URRAKORTASUNA

Disfagia duten erabiltzaile batzuen kasuan, historia klinikoa eta irensteko azterketa klinikoarekin nahikoa da esku-hartzeak erabakitzek, baina beste batzuetan azterketa instrumentala egitea beharrezkoa da (adibidez, bideofluoroskopia) (12).

DOren esku-hartzeak diziplina anitzeko talde bat behar du, eta pazientearen ezaugarrien arabera indibidualizatu behar diren hainbat estrategia daude. Helburu nagusia ahozko bidea ahalik eta modu normalizatuaren erabiltzen jarraitzea da, hori posible da, betiere nutrizio-egoera egokia mantendu badaiteke, osasunerako edozein konplikazio saihestuz (1). Sindromea tratatzeko estrategiak hainbat talde nagusitan multzokatzen dira: errehabilitazio estrategiak (jarrera-estrategiak, gehikuntza sensoriala, praxia neuromuskularrak eta maniobra espezifikoak); boloaren ezaugarriak aldatzea; eta oinarri neurofisiologikoa duten tratamendu berriak (12).

Erabiltzaileak fisiologia aldatu gabe izan ditzakeen konplikazioak gutxitzen saiatzeko, tratamendu konpentsatzaileez hitz egiten da, hala nola, dieten egokitzapenez, jarrera-estrategiez eta testura aldaketek. Aldiz, irenketaren fisiologia aldatzeko asmoa badago, pazientearen maila kognitibo ona eskatzen duten errehabilitazio estrategiak, irenketak teknikak eta prozeduretara mugatutako tratamendu kirurgikoak aurkitzen dira. Modu klasikoan, dieta egokitzea barne hartzen du, baina populazio horretan gorputz jarrera egokiak, elikadura eta nutrizio-teknikak, hots, elikagaien eta likidoen trinkotasuna aldatzea, sendagaien egokitzapena eta zaintzaile eta profesional soziosanitarioen heziketa funtsezkoa da (7, 8, 20).

Erabiltzaileentzat egokienak diren tekniken aukeraketan eragina izan dezaketen hainbat alderdi ebaluatu behar dira: pazientearen egoera kognitiboa, alerta-egoera, jokabide- eta emozio-alderdiak, irenketaren nahasmenduaren kontzientzia-maila, ikasteko gaitasuna, motibazio-maila, neke-maila eta familia-euskarria edo zaintzaileak (12).

Gaur egungo praktika klinikorik onena ondorengoa da: eraginkortasunaren eta segurtasun zuzenaren alterazio diskretuak dituzten pazienteek dieta librea jarraitzea; alterazio moderatuak dituzten pazienteek aldaketak gauzatzea bolumena murrizteko eta elikadura-boloaren biskositatea handitzeko; alterazio larriak dituzten pazienteek, biskositatea areagotzea eta jarrera aldaketak behar dituzte, maniobra aktiboak eta

ahoko zentzumen-gehikuntza sartzean oinarritutako estrategiak erabiliz. Paziente profil bat dago, errehabilitazio-teknikak aplikatuz tratatzerik ez dagoena, eta horietan ahotik elikatzea ezinezkoa bada, gastrostomia endoskopiko perkutaneo jartzea beharrezkoa izango da (12).

1.6. KOSTUA

Agerikoa da, lehen mailako arretaren, ospitaleen, eta arreta soziosanitarioaren artean desproporzio handia dagoela prebalentziak, erikortasunak eta disfagiaren konplikazioek eragindako kostu sanitarioan. Baita, sindrome honetara bideratutako baliabide maila baxuan ere (12).

Alde batetik, irensketa eraginkortasunaren narriadurak, pazientearengan askotan koadro progresiboak eragin dezake eta horrek, osasun-baliabide garrantzitsuen gastua dakar. Ospitaleetako elikadurari eta nutrizioari buruzko Europako Kontseiluaren ebazpen baten arabera, erabiltzaileen malnutrizioak ospitaleratze luzeagoak eragiten ditu, bizi-kalitatea murrizten du eta osasun-arretan beharrezkoak ez diren kostuak handitzen ditu. Halaber, berretsi egiten du erabiltzaileen nutrizio-egoera ebaluatzea pazienteak identifikatzeko eta beharrezko interbentzioak egin ahal izateko (12, 20).

Bestetik, irenketaren segurtasunaren gutxitzeak, xurgatzeak eragin ditzake, baita pneumoniak eragindako pazienteen ospitaleratzea ere. Kalkuluaren arabera, disfagia duten pazienteen % 80 ez dago aztertua, eta diagnostiko goiztiarra eginez gero, 65 urtetik gorakoen heriotzen % 15 saihestuko litzateke (3).

Adibide gisa, elikadura-eskakizun jakin batzuk behar dituen produkturen batekin loditutako likidoak erabiliz, Estatu Batuetan, urtean 969,62 euroko gastua izan daiteke, edo, are gehiago kostuak handitu daitezke 3.918,45 euroraino. Gainera, sindromea artatzeko erabili diren baliabide guztiak kontuan hartuta, 1.000 milioi dolar baino gehiago eragiten ditu urtean, larrialdietara bisita gehiago egitearen, arnasketa-konplikazio eta konplikazio sistemiko gehiagoren, instituzionalizatzeko premia handiagoren, nutrizio-eta arnasketa-euskarriaren, ospitaleratze errepikatuen eta egonaldi luzeen ondorioz (22). Izan ere, duela gutxi argitaratutako Danimarkako azterlan batek, DOak paziente geriatrikoetan zuen kostua ebaluatu zuen, eta kostua handiagoa zela erakutsi zuen, ospitale-eremu zein komunitatearekin alderatuta. Urteko ospitale-kostuak batuta, DOa zuten pazienteena 3.677 euro garestiagoa zen DOrrik gabeko pazienteena baino (12).

Irailaren 24ko 1205/2010 Errege Dekretuaren arabera, "Osasun Sistema Nazionaleko produktu dietetikoaren prestazioan, erabilera mediko berezietarako elikagai dietetikoak sartzeko oinarriak ezartzen dituen, modulu lodigarriak finantzatzeko dira soilik disfagia neurologikoa edo, salbuespenez, motorra duten gaixoengan, elikagai

likidoen trinkotasuna handitzeko erabiltzen badira, zunda nasogastrikoa edo gastrostomia erabiltzea saihesteko edo atzeratzeko asmoz. Gaixo horiek arriskurik gabeko elikagai solidoak hartzeko aukera dutenean, baina elikagai likidoak irensterako orduan xurgapena jasaten dutenean edo jasateko arriskua dutenean, kontsumo arrunteko alternatibekin ezin badira loditu". Errege dekretu horrek, modulu lodigarriak eraldatutako almidoiez osatutako produktuak direla dio, zuntzak eraman dezaketenak, hauts itxurarekin eta zapore neutroarekin (12).

Frogatu da, NUTRICARE-k egindako esku-hartzeei esker, pertsona disfagiakoetan irensteko zailtasunak murriztu zirela, eta askok, autonomia berreskuratu zuten, beren kabuz jaten. Beraz, pazienteen nutrizio-irabaziak onura handiak ditu malnutrizioa murrizteko. Gainera, disfagia duten pertsonentzako osagarriak eta elikatzeko denbora luzatzea saihesteak kostu handiak aurreztu ditzake adinekoen egoitzetan (19).

1.7. XEDE TALDEAREN AUKERAKETAREN JUSTIFIKAZIOA

OMEren arabera, mundu mailan 60 urtetik gorako 605 milioi pertsona daudela eta biztanleria-talde hori handitzen joango dela 2025ean 1200 milioira iritsi arte, disfagia duten adinekoei zuzendutako programa egitea beharrezkoa da. Espainia mailan 2018an, 65 urtetik gorakoak % 18,2koa zen, 2029rako % 24,9 izango da eta 2064rako % 38 estimatzen da (7).

Programa hau, irensketa-arazoak dituzten pazienteentzat esku-hartze argi eta integrala ezarri nahi duten hainbat lanbide-eremutako klinikoei zuzenduta dago, hau da, diziplina anitzeko taldeari (medikuak, logopedak/ terapeutak, dietistak, erizaintzako langileak, erizaintzako laguntzaileak, etab.). Lanak, erabiltzaile horien diagnostikorako eta tratamendurako tresnak eta kontzeptu praktikoak emango ditu (12).

Erizainek, berebiziko garrantzia dute egoiliarrek esku-hartze egokiak jasotzen ari direla bermatzeko. Egoiliarrek egoitzan onartu bezain laster, nutrizio-premien eta nutrizio-arazo posibleen ebaluazioa egin behar zaie. Pazientea zaintzeaz arduratzen denez, trebatuta egon behar du irenketaren lehen balorazioa egiteko eta behatzeko, askotan ez baitakite arazo hori dutela. Erizainek disfagiaren baheketa egiteko jarrera ideala dute, izan ere, pazienteen eskura daude eguneko 24 orduetan (3, 6).

Gainera, egoiliarrei, haien familiei eta mendeko langileei (sukaldeko langileak, zaintza laguntzaileak, erizain lankideak) disfagia modu seguruan kudeatzen, egoiliarren duintasuna mantentzen eta jasotako tratuarekin pozik daudela ziurtatzen erakutsiko diete. Langile guztiek jakin behar dute disfagia duen pertsonak behar duen elikagai- eta fluido-trinkotasuna, jateko laguntza espezifikoren bat behar duen, eta beti, aho-higiene

optimoa eskaini behar zaie. Era berean, formazio egokia izan beharko lukete fluido trinkoak behar bezala prestatzeko (12).

Erizaintzako irakaskuntza-, laguntza-, administrazio- eta ikerketa-funtzioak direla-eta, arduradun nagusiak dira erabiltzaileei eta haien senideei ezagutza horiek transmititzeaz. Baita, estrategia berriak ikertzeko arduradunak ere, beste profesional batzuekin batera, laborategietan produktu berriak sortuz elikagaien testura egokitzeko eta irensteko funtzioa berreskuratzeko. Era berean, adinekoen egoitzetako eta ospitaleetako eguneroko asistentzian deskribatutako esku-hartzeen inguruko berrikuntzak aplikatzeaz arduradun dira. Horrekin, pazienteen bizi-kalitatea eta eztarria tratatzea bezalako bizi-arriskuko egoerak saihestea lortu daiteke. Horrela, erizainek bere erantzukizun nagusia beteko dute: erabiltzaileak zaintzea (16).

2. HELBURUAK

2.1. HELBURU NAGUSIA

Disfagia maneiaren inguruko Osasun Hezkuntza programa diseinatzea Erreterriako adinduen Jesusen Bihotza egoitzako langileei zuzendua.

2.2. BIGARREN MAILAKO HELBURUAK

- Xede taldeak gai honen inguruan dituen jakintza eta ezagutzak identifikatzea.
- Xede taldeak lortu behar dituen helburu pedagogiko nagusiak eta bigarren mailakoak formulatzea.
- Hezkuntza edukiak deskribatzea .
- Saioetan erabiliko diren estrategia metodologikoa ezberdinak finkatzea.
- Osasun Hezkuntza proiektua gauzatzeko, antolakuntza, giza eta material baliabideak planifikatzea: kronograma, lekua, osasun-agentek eta baliabide materialak.
- Proiektuaren baliabideen, egituraren, emaitzen eta prozeduren ebaluazio-sistema finkatzea.
- Laguntza materiala eskaintzea.

3. HEZKUNTZA EDUKIAK

Planteatutako helburuak lortzeko, hezkuntza edukia 12 gaietan bereizi da. Gai bakoitza lantzeko, jarraian zehazten dira jorratuko diren puntuak.

Programari hasiera emateko, erizainen eta gonbidatuen aurkezpenarekin hasiko litzateke. Jarraian, egoitzako osasun agenteek haien burua aurkeztu eta disfagiaren inguruan duten ideiak zein informazioa partekatuko lukete.

0. **GAIA: AURKEZPENA.** Harrera, osasun agenteak disfagiaren inguruan duten informazioa partekatzea. Helburuak adostu denen artean.
1. **GAIA: GAIAREN SARRERA. DISFAGIA.** Definizio orokorrak azaldu: irensketa, sindrome disfagikoa...
Lehenengo helburu zehatza jorratuko da.
2. **GAIA: ZEINU ETA SINTOMAK ETA DISFAGIAREN SAILKAPENA.** Zeinu eta sintoma ezberdinak; disfagia mota ezberdinak 5 sailkapenen arabera.
Lehenengo helburu zehatza jorratuko da.
3. **GAIA: ANATOMIA, FISILOGIA.** Giza gorputzaren anatomia; elikagai boloak (likido zein solido) zer prozesu egiten duen ahora eramaten dutenetik urdailera iritsi arte, zein muskuluk parte hartzen duten irenketan...
Bigarren helburu zehatza jorratuko da.
4. **GAIA: ETIOLOGIA, PREBALENTZIA.** Arrisku faktoreak: adinekoak izatea, bizilekuaren arabera arrisku gehiago, sexuaren arabera, gaixotasunak... Osasun sistema publikoak gastatzen duen dirua sindrome honetan.
Hirugarren helburu zehatza jorratuko da.
5. **GAIA: FISIOPATOLOGIA ETA KONPLIKAZIOAK.** Zer egiturak/ muskuluk kaltetzen diren sindrome disfagikoa sortuz; zer konplikazio ager daitezkeen eraginkortasunaren eta segurtasunaren alterazioekin: malnutrizioa, deshidratazioa, pneumonia...
Bosgarren helburu zehatza jorratuko da.
6. **GAIA: DETEKZIO GOIZTIARRA.** Kostu baxuko erizaintzako balorazio teknikak detekzio goiztiarra egiteko proposatu eta garatu; medikuak diagnostikatzeko proba ezberdinak aipatu.
Laugarren helburu zehatza jorratuko da.
7. **GAIA: VIRGINIA HENDERSONEN (VH) 14 BEHARRETATIK ZEIN DIREN GABEZIA DUTENAK.** 14 beharrak definitu eta sindromearekin lotuta daudenak analizatu eta erizaintza diagnostikoak sortu.
Zortzigarren helburu zehatza jorratuko da.

8. **GAIA: ESKU-HARTZE EZBERDINAK.** Nutrizioa, gorputz jarrerak, errehabilitazioa, neurri konpentsatzaileak; aho-higiene egokiaren inguruan informazioa garatu.
Zortzigarren eta bederatzigarren helburu zehatzak jorratuko dira.
9. **GAIA: ESKU-HARTZEA NUTRIZIOAREN BITARTEZ.** Elikagai testura ezberdinak eta nola prestatu; elikagai birrinduak eta testurizatuen ezberdintasuna azaldu; Mantenugaien beharrak etiologia kontuan hartuz; zein elikagai gomendatzen diren eta zeintzuk saihestu behar diren ehunduren arabera; ehundura solidoak eta likidoak; laguntza materiala erabili: platerak, koilareak...
Hamargarren helburu zehatza jorratuko da.
10. **GAIA: ZEIN ALTERNATIBA DAUDEN AHOTIK JADA JAN EZIN DUTENENTZAT.** Gaixotasuna aurreragi dutenentzat zein alternatiba dauden elikagaiak irensteko azaldu: zunda nasogastrikoak, nutrizio enteral eta parenterala.
Bederatzigarren helburu zehatza jorratuko da.
11. **GAIA: OSASUN AGENTEEN JARRERA PROZESUAN.** Sindromea edukitzeko susmoa edukiz gero zer jarrera egokiak diren antzeztea; diagnostiko goiztiarra egin, tratamendu mota ezberdinak eskaini, jarraipen bat eman esku-hartzeak ebaluatzeko; disfagia kontrolatu ezean, zein diren bigarren mailako ondorioak; konplikazio ezberdinak eta nola tratatu, bereziki malnutrizioa, deshidratazioa eta bronkoaspirazioak; "Heimlich" maniobra zer den eta nola egin arnas konplikazioa gertatuz gero.
Seigarren, zazpigarren, hamaikagarren eta hamabigarren helburu zehatzak jorratuko dira.
12. **GAIA: GAIKOAREN ETA ZAINZAILAREN AUTONOMIA ETA EMOZIOAK ZEIN BELDURRAK LANDU.** Segurtasuna eta efikazia azaldu, haien alterazioak erabiltzaileak egoitzan bizitzeagatik; jateko edo edateko orduan zer beldur dituzten; osasun agenteak jaten ematerako orduan dituen beldurrak identifikatu.
Hamahirugarren helburu zehatza jorratuko da.

4. METODOLOGIA

Planteaturiko helburuen bidez Osasun Hezkuntza proiektua sortzen hasteko, gaiaren inguruko bilaketa bibliografikoa egin zen 2022ko azaroa eta 2023ko otsaila bitartean. Horretarako, helburu orokorra kontuan hartuz PIO egitura jarraitu zen.

- **Population (pazientea):** Gaixotasun neurologiko eta neurodegeneratiboak dituzten 65 urte baino gehiagoko pertsonak.
- **Intervention (esku-hartzea):** Sindrome disfagikoaren Osasun Hezkuntza proiektua.
- **Outcome (emaitzak):** Disfagiaren detekzio goiztiarra egitea tratamendu egokia aplikatzeko eta konplikazioak saihesteko.

“Sindrome disfagikoaren inguruan Osasun Hezkuntzako programak ba ahal daude disfagiaren detekzioa eta esku-hartze goiztiarra egiteko?”

Jarraian, PIO egituraren elementu bakoitzaren osasun-zientzietako deskribatzaileak [“Descriptores de Ciencias de la Salud” (DeCS) eta “Medical Subjects Headings (MeSH)"] eta hitz gakoak/ terminologia librea zehaztu ziren (*ikus 1. Taula*).

1. **Taula:** PIO egituraren oinarrituta erabilitako deskriptoreak eta hitz gakoak/ terminologia librea. **Iturria:** Ekoizpen propioa.

PIO egitura	DeCS	MeSH	Hitz gakoak/ Terminologia librea
P: 65 urte baino gehiagoko pertsonak	Anciano Anciano de 80 o más años	Aged Aged, 80 and over	Personas mayores Older adult
I: Osasun Hezkuntza proiektua	Atención de enfermería Intervención	Nursing care	Erizainaren esku- hartzea
O: Disfagiaren detekzio goiztiarra egitea/ Disfagiaren maneia	Diagnóstico precoz Trastornos de deglución Incidencia Prevalencia	Early diagnosis Deglutition disorders	Diagnostic Prevalence Dysphagia

Hitz horiek erabilita, bilaketa bibliografikoa datu-base desberdinetan egin zen: Biblioteca Virtual de Salud (BVS), Cuiden, Dialnet, PubMed eta Scielo. Emaitza zehatzagoak lortzeko asmoz, 4. *Eranskin*eko egitura jarraituz, erabilitako operadore boolearrak “AND” eta “OR” izan ziren. Gainera, hainbat iragazki ere erabili ziren helburu berdina lortu nahian: urtea (10 urteko epea, ebidentzia eskasarengatik) eta hizkuntza (euskara, gaztelania, ingelesa).

Ondoren, artikuluak hautatuak izateko barneratze eta kanporatze-irizpideak zehaztu ziren. Barneratze-irizpideen artean, 65 urte baino gehiagoko pertsonak izatea, etiologia gaixotasun neurologiko eta neurodegeneratiboengatik aipatzea, disfagia orofaringea aipatzea, instituzionalizatuak egotea eta erizain zainketak agertzea. Kanporatze-irizpideen artean berriz, adin-tartea ez betetzea, beste etiologiengatik izatea, adinekoak komunitatean edota ospitalean egotea eta prozedura medikuak bakarrik aipatzea (bideofluoroskopia).

Hortaz aparte, emaitza asko lortu ziren bilaketetan artikuluen izenburuak eta laburpenak irakurri ziren gaiarekin zerikusia zuten bermatzeko. Bilaketa saiakera asko egin ondoren, osatutako behin-betiko bilaketa taula aurkezten da (*ikus 2. Taula*).

2. **Taula:** Behin-betiko bilaketa eta lortutako emaitzak. **Iturria:** Ekoizpen propioa.

Datu-basea	Bilaketa-estrategia	Emaitzak iragazki gabe	Emaitzak iragazkiak aplikatuta	Emaitzak barneratze/ baztertzeko irizpideak aplikatuta	Erabiliak
CUIDEN	[cla="Personas mayores"] and [cla="Disfagia"]	3	2		1
BVS	(disfagia) AND (personas mayores) AND (cuidados de enfermeria)	196	59		3
DIALNET	personas mayores disfagia	47	37		2
PUBMED	(((((dysphagia[MeSH Terms]) AND (dysphagia, oropharyngeal[MeSH Terms])) OR (deglutition disorder[MeSH Terms])) AND (diagnostic[MeSH Terms])) AND (prevalence[MeSH Terms])) AND (older adult[MeSH Terms]))	412	151		2

Datu-baseez gain, web-gune ezberdinetan bilaketak egin ziren: ASPACE, “Sociedad Española de Médicos de Atención Primaria” , “Sociedad Española de Endocrinología y Nutrición”, Hermanas Hospitalarias Red Menni de Daño Cerebral eta Euskal Estatistika Erakundea, besteak beste. Baita, NNN consult datu-basea erabili zen ere.

Metodologiarekin bukatzeko, aipatu beharra dago gero eta ebidentzia maila altueneko artikuluak aukeratzeko asmoz, hau da, errebisio sistematikoak hautatzeko, ebidentzian oinarritutako “Haynes piramidea” erabili zela oinarri gisa (*ikus 5. Eranskina*).

5. PLANGINTZA

5.1. XEDE TALDEA IDENTIFIKATU

Errenteriako adinduen Jesusen Bihotza egoitzako osasun agenteei (erizainak, medikuak, erizaintzako laguntzaileak) bideratutako Osasun Hezkuntza programa diseinatu da.

Disfagia sindrome geriatrikoa izanik, adinak gora egin ahala kausen zerrenda handitu egiten da, baina gaixotasun neurologikoetan eta neurodegeneratiboetan zentratzea erabaki da, prebalentzia handienak dituztelako (4, 6, 10). Aipatzekoa da, gaur egun erizainek disfagiaren inguruan informazio eta formazio eskasa dute, horrek zailtzen baitu detekzio goiztiarra egitea (7).

Bestetik, zahar egoitzetako erabiltzaileak aukeratu dira, ingurune horretan ohikoa delako sindrome hori edukitzea. Batik bat, osasun agenteen denbora faltagatik detektatzeko, solidoa zein likidoa irensteko zailtasunari garrantzi handirik ematen ez zaiolako, egoitzetara doazen erabiltzaile gehienak dependentzia maila batekin daudelako, etab. (4).

Osasun Hezkuntza proiektu honen saioak, Errenteriako Jesusen Bihotza egoitzan izatea erabaki da. Izan ere, egoitza batera mugatzea talde txikian hobeto lan egiteko aukera dago, erabiltzaileak gehiago ezagutzeko zein beraien arteko ezagutzak azalarazteko eta horrela proiektua hobeto garatzeko. Programak emaitza onuragarriak izanez gero, beste egoitza batzuetara bideratu ahalko litzake.

5.2. XEDE TALDEAK LORTU BEHAR DITUEN HELBURU PEDAGOGIKOAK

5.2.1. HELBURU NAGUSIA

Errenteriako adinduen Jesusen Bihotza egoitzako osasun agenteei sindrome disfagikoaren inguruan sentsibilizatzea, detekzioa goiztiarra eta tratamendu egokia aplikatuz konplikazioak ekiditeko Osasun Hezkuntza programaren bidez.

5.2.2. BIGARREN MAILAKO HELBURUAK

Errenteriako adinduen Jesusen Bihotza egoitzako osasun agenteek disfagia maneiatzeko zera lortuko dute:

- 1) Disfagia orofaringeoaren kontzeptua eta haren zeinu eta sintomak definitzea bigarren saiorako: EZAGUTZA
- 2) Elikagai boloak egiten duen fisiologiari eta irenketaren nahasmenduei buruzko laguntza, hezkuntza eta ikerketa sustatzea bigarren saiorako: GAITASUNA
- 3) Sindrome disfagikoaren arrisku faktoreak eta ohikoenak direnen prebalentzia jakitea bigarren saiorako: EZAGUTZA
- 4) Disfagiaren detekzio goiztiarra aplikatzeko gaitasuna ikastaro amaierarako: GAITASUNA
- 5) Nutrizio- eta arnas-konplikazioak zein diren identifikatzea hirugarren saiorako: GAITASUNA
- 6) Konplikazioak topatuz gero, zein esku-hartze aplikatzen jakitea saio amaierarako: EZAGUTZA
- 7) Pazientearen nutrizio- eta hidratazio-egoera ebaluatzea eta jarraipen bat egitea saio amaierarako: JARRERA
- 8) Gaur egun erabilgarri dauden erizaintzako balorazio teknikak deskribatzea ikastaro amaierarako: EZAGUTZA
- 9) Otordu bakoitzean gorputz jarrera ezberdinak erakusteko gaitasuna izatea laugarren saiorako: GAITASUNA
- 10) Elikagai gaitasunaren araberako jarraipen terapeutikoak aplikatuz dieta bat burutzea elikagai testurizatuak sartuz ikastaro amaierarako: JARRERA
- 11) Disfagiaren esku-hartzeak lortutako emaitzen zaintza eta jarraipena (asistentzia-jarraitutasuna) egitea saio amaierarako: JARRERA
- 12) Simulazio bat egitea pazientea egoitzan sartzen denetik edo sindromea edukitzeko susmotik jarraipenak egin arte egin arte esku-hartzeak aplikatuz saioan bertan: EZAGUTZA, JARRERA, GAITASUNA
- 13) Erabiltzaileen eta osasun agenteen sentimenduak eta emozioak identifikatzea 4.saioan zehar: EZAGUTZA

5.3. JARDUEREN PROGRAMAKETA

Metodo eta teknika aktiboen konbinazioa erabiliko da programa guztian zehar. Ebaluazioa hasieratik bukaerainokoa izango da, jarraitua izanik. Erizainen-rola ikaskuntzan lagundu eta formatzea da eta saioak hasieratik programatuak egongo dira.

Osasun Hezkuntza programa guztian zehar bi osasun agente (erizainak) mantenduko dira, eta bi gonbidatu egongo dira saio bakarrerako, logopeda eta sukaldari bat. Agente berdinak mantenduz errazagoa izango da konfiantzan oinarrituriko giroa sortzea.

